

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko martxoaren 27an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
JOSU GARMENDIA RECALDE
DANIEL OYARZABAL LARRABURU

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

1.-AURREKO AKTEN ONARPENA

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko martxoaren 6ko ohiko batzarreko aktan, ia norbaitek aldatetaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez akta onartzea erabaki du.

2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

ARANTXA PERURENA. Aitasemegiko auzolanerako hamaikatakoa	29,32 €
DANIEL OYARZABAL. Otsaileko kilometrajea, eta martxoaren 5ekoa	53,94 €
BXPORT. Jumpfit eta pilates saioak: otsaila	942,42 €
AELVALSA. Argiteri publikorako bonbilak.	36,66 €
LYRECO. Eskolako komuneko papera	31,56 €
LYRECO. Bulego materiala	70,35 €
KOPY LEKU. Fotokopioraren mantenimentua	108,55 €
ANSA JANARIDENDA. Zubimuxuko garbiketa materiala: papera, txaboia.	21,08 €
ARANTXA PERURENA. Aitasemegi-Espidealdea auzolanetako hamaikatakoa	27,99 €
CAMPOS GARBI. Arratoi eta xaguentzat pozoia	184,22 €
AMAIA UITZI. Martxoaren 3an babes zibilekoen bilera ondorengo kafeak	23,20 €
AMAIA UITZI. Martxoaren 10ean Artikutzari buruzko bilera ondorengo kafeak	7,40 €

ARANTXA PERURENA. Tartazu-Alkainzuriain auzolanen ondorengo hamaika.	38,41 €
I-SAI. Sarrerako atearen 10 txartel	38,24 €
LUA ARKITEKTOK. Tifanitxo gaztetxearen erreberitzearen proiektuaren idazketa	3.375,90 €
RICARDO GALDEANO. Eskolako gasoila	2.112,60 €
RICARDO GALDEANO. Udala eta kontsultako gasoila	654,13 €
CORREOS. Otsaileko korreo gastua	79,56 €

Ordaindu beharreko gastuak: 7.835,53€

Gastu helbideratuak

1	ANIMSA. CSR zerbitzuaren 1. hiruhilabetekoa	959,65 €
2	ANSA JANARIDENDA. Maixe Aizpuru. Zubimuxuko komuneko papera.	3,90 €
3	MENDIALDEA. Garapen agentearen likidazioa, 2016koa.	1.531,66 €
4	TUV Rheiland. 5589-GTG anbulantziaren ITVa	45,75 €
5	ORTIZ DE ELGUEA. Otsaileko aholkularitza	147,80 €
6	NILSA. 2017 urteko saneamentu kanonaren likidazioa	42.074,74 €
7	GOIZUKOOP, S.Coop. Udalako ibilgailuen gasoila	66,11 €
8	LAGUN ARTEA. Zubimuxuko kuotak	90,00 €
9	LA CAIXA. Banku komisioak 2018/03/01tik 2018/03/21era	25,36 €
10	GOIENER. 2018/03/01tik 2018/03/21era	2.641,98 €
11	VODAFONE. 2018/03/01tik 2018/03/21era	579,70 €
12	MOVISTAR. 2018/03/01tik 2018/03/21era	333,12 €
13	EVOLUZZIONA. Urumea arnastu 2016ko faktura	180,77 €
14	EVOLUZZIONA. Urumea arnastu 2017ko faktura	71,87 €

Helbideratutako gastuak: 48.752,41€

Gastuak guztira: 56.587,94€

Ondoren, Alkateak, diru sarreren berri eman du

DIRUSARRERAK

1	ERRENTAK. Udal eraikinen errenta, martxokoa	225,49 €
2	ZERGADUNAK. Ibilgailu berrien gaineko zerga. Helbideratu gabeak	1.634,67 €

3	ZERGADUNAK. Aurreko urtetako zergak	830,94 €
4	ZERGADUNAK. Gimnasioko kuota. Helbideratuak	75,00 €
5	ZERGADUNAK. Gimnasioko kuota. Helbideratu gabeak	25,00 €
6	NAFARROAKO GOBERNUA. Hiri eremuen berreskurapenaren dirulaguntza	2.082,92 €
7	IRUNE ZABALA. Zubimuxuko alokairuaren 3. ordainketa.	2.000,00 €
8	ZUBIMUXU. Urtarrileko egonaldien sarrerak	87,00 €
9	ZUBIMUXU. Otsaileko egonaldien sarrerak	358,00 €

Guztira dirusarrerak: 7.319,02€

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez.

3.-INFORMAZIOA

3.1.-KANTAURIKO UR KONFEDERAZIOA.

Kantauriko Ur Konfederaziotik txostena jaso da, Fermin Narbarte Loyartek, Errotazar parajeko (4 poligonoko 37 partzela) iparraldean eta ekialdeko lurzatiak katastroan partikularraren izenean jartzeko egindako eskaeraren gainean.

Kantauriko Ur Konfederazioko txostenak dionez, katastro aldaketa eskatzen den lurzatiak "dominio publico hidraulico" kontsideratzen dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.2.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Herri Lurretako Atala

2012 urtean, Xabier Taberna Makazaga jaunak, 4 poligonoko 224 partzelaren zati bat eta 8 poligonoko 18 partzelaren katastro modifikazioa eskatu zuen, partzela hauek, katastroan Francisca Macazaga Goizuetaren izenean jartzeko eskatuz.

Lur komunalak zirenez, Goizuetako Udalak, Herri Lurretako Atalari eskatu zion dagokion txostena. Txosten hau, 2018ko martxoaren 21ean jaso da Goizuetako Udalean, eta txostenak dionaren arabera, aipatutako lurzatiaren gainean partikularrak aprobetxamendu eskubidea besterik ez luke izango, ondorioz, partikularrak eskatutako katastro aldaketa egitea ez dagokiola ondorioztatzen du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

3.3.-IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Iparraldek Euskara Mankomunitatetik, martxoaren 19rako Batzar Orokorreko deialdia jaso zen, aldi berean batzar hau bertan bera gelditu zelaren abisua eta azkenik, Batzar berri bat egiteko deialdia martxoaren 26rako Lekunberriko Udaletxeko Batzar Aretoan.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.4.-GARRAIO ZERBITZUKO ZUZENDARITZA

Garraio Zerbitzuko Zuzendaritzak, Leitzan martxoaren 16an bilera deitu du, Iruña-Donostia ipar ekialdeko zonaldeko garraioaren ibilbidearen gainean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

Aldi berean, bilera egin ondoren, bileran egindako proposamena igorri da, apirilaren 13arte egoki iruditzen diren proposamenak aurkeztu daitezzen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.5.-LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA. Prebentzio Batzordea

Otsailaren 26an egindako Prebentzio batzordeko akta eta dokumentazioa jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

3.6.-TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusitik, oroitarazten da, 2016ko edo atzeragoko kontuak, 2017ko likidazioa martxoaren bukaerako bidali behar direla, eta 2018ko aurrekontua, abenduaren 31rako onartua eta behin betiko onartu ondorengo hamabost egunetan bidali behar de la Zuzendaritza Nagusira. Epe hauek ez betetzeak, Tokiko Inbertsio Planetako obretan eragina izan dezakeela ohartarazten da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.7.-TOKI AGENDEN ETA LANKIDETZAREN BULEGOA.

Bulego honetatik jakinarazi da, martxoaren 16an argitaratu zela, Agenda 21eko proiektuak garatzeko diru-laguntzen deialdia, apirilaren 15arte izanik eskaera epea.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.8.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Abeltzaintzako Zerbitzua.

Abeltzaintzako Zerbitzuak aldeko txotena egin du, Juan Jose Elizalde Usarragak sustatu duen, abere pabiloia handitze obra proiektuaren gainean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.9.-SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO-NAFAR LANSARE

Nafar Lansaretik, interes orokorreko edo sozialeko lanak egiteko langabetuak kontratatzeko udalen aldeko diru-laguntza deialdiaren berri jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.10.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik, honako dokumentazioa jaso da:

-2018ko otsailaren 13an egindako Batzorde Betearazlea.

-Herritarrek Toki Entitateetan parte hartzeko web 2.0ko buruzko tresnei eta teknologiei buruzko jardunaldiako gonbidapena. Apirilaren 10ean ospatuko dena

3.11.-GARAPEN AGENTEA

Garapen Agentea den Elena Irigoienek, martxoren 14ko bilera deialdia egin zuen, 2017ko memoria aztertu eta 2018ko egitasmoa aurkezteko.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

Aldi berean, bilera egin ondoren, bileran aurkeztutako dokumentua igorri da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.12.-NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

Transgenikoen inguruko hausnarketa jardunaldi baten berri eta gonbidapena egin zitzaion Goizuetako Udalarari

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.13.-NOSTRATEC INGENIERIA Y DISEÑO. Zaborteagiko obra

Jose Ignacio Diego Pereda Ingenieriak, Zabortegiko obra zuzendariak, "Informe y Certificado de Control de garantía de Calidad", igorri du Goizuetako Udalera. Txosten hau zabortegian jarri den "geosintetikoen" kontrola eraman duen Lurgintza enpresak egin du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.14.-INGURUGIRO DEPARTAMENTUA. "Medio Natural "eko Zerbitzua

"Medio Natural"-eko Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren 2018ko otsailaren 27ko 159 Ebazpenaren bidez, 2017 urtean zehar, mendian sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamendua onartu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.15.-NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA.

Nafarroako Foru Komunitateko Politika Publikoetan Emakumeen Parte Hartze sozial eta politikorako 2017-2019 Estrategiako prozesu parte hartzailearen itzulera saiorako gonbidapena jaso zen, martxoaren 20rako

Udalbatza jakinaren gainean zegoen

3.16.-NACERT NAVARRA. Entidad Navarra Solicitante de la Certificación Forestal PEFC

Joan den azaroaren 24ean ospatutako Batzar Orokorraren akta eta 2017 urteari dagokion gastu eta dirusarreraren Balantzea eta "matriz de seguimiento de indicadores" dagokiona bete eta jasotzeko, hiru urteko epean, auditoriaren batean bere ikuskapena eskatu daitekeelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.17.-RED NESL

Red Nels-eko 18.Batzar Nagusiaren deialdia egin da, apirilaren 7rako, Erriberriko Kultur Etxean, goizeko 9.30tan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

3.18.-HERRITARREN ARRETARAKO ETA PARTAIDETZARAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Martxoaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta bultzatzeko proiektuak garatzeko diru-laguntza deialdia argitaratu dela jakinarazi da

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.19.-HERRITARREN ARRETARAKO ETA PARTAIDETZARAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Zuzendaritza honetako 2018ko otsailaren 20ko 7/2018 Ebazpenaren bidez, 012 zerbitzuaren 2018 urteko ordainketa agintzen da, Goizuetako udalaren kasuan, gastua 1228€ dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.20.-ENERGIA, MEHATEGI ETA INDUSTRI SEGURTASUNEKO SERBITZUKO ZUZENDARITZA

Zuzendaritza honetako 2018ko otsailaren 20ko 40/2018 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Aldundiko zenbait udalerrri eta hiri gunetako kanalizatutako propano gasaren sareak zabaltzeko aurreiazko baimen administratiboa onartzen da. Proiektu hau Gas Natural Redes GLP, S.A.-k sustatu du, eta udalerrien artean Goizuetako dago.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4.-ESKAERAK

4.1.MOZORROAK 2018ko IÑAUTERIAK. Diru-laguntza eskaera

Olatz Zabala Narbarte, 2018ko Iñauteritako Mozorro Taldearen izenean, Goizuetako Udalera zuzendu da, eta 2018ko Iñauteritako gastuak aurkezten ditu, gastu osoa 1.815,00€ izanik. Goizuetako udalari gastu honen erdiaren herena eskatu dio diru-laguntza moduan, hau da 302,50€

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, Azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntza Orokorren Legeak agintzen duen moduan, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, aurrekontuan hala izenduak egon behar dutela eta dagokion hitzarmena sinatu behar dela onuradunarekin. Goizuetako udalaren aurrekontuan ez dago halako aurreikuspenik.

Udalbatzak, eskaera aztertu ondoren eta idazkariaren ohartarazpenaren jakinaren gainean, aho batez erabaki du, 302,50€tako diru-laguntza onartzea Goizuetako 2018ko Iñauteritako Mozorro Taldearen alde

4.2. SANTI SEMPER MUJIKA. Goizutrail egunean postu bat jartzeko baimen eskaera.

Santi Semper Mujika Goizuetako Udalera zuzendu da, eta maiatzaren 19an Goizutrail mendi lasterketa egunean, mendiko zapatilak eta osagaiak erakusteko 2x2ko postu bat jartzeko baimena eskatu du.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren erabaki du:

1.-Santi Semper Mujika Jaunari maiatzaren 19an eskatutako postua jartzeko baimena (lizentzia) ematea, ondorengo baldintzekin:

- Postuaren tamaina 2 metro luze eta 2 metro zabal baino handiagokoa ez da izango, eta ezingo da postuaren ondoan ibilgailurik aparkatu
- Erabilitako edo okupatutako kokalekua erabilpenaren aurretik zegoen moduan utzi beharko da.
- Ezbeharririk gertatzekotan lizentziaren titularraren ardura izango da.
- Goizuetako Udalak erabakiko du eta zehaztuko du postuaren kokalekua.
- Postua kokatzen den momentutik, lizentzia begi bistan egon beharko da.
- Postuan saltzen egon behar duen pertsonak, tasa ordainduta dagoenaren ziurtagiria Udaletxeko langileen eskura eduki beharko du.

2.-Tasari dagokionean 6 € kobratzea erabaki da, akordio honi erantzen zaion zerga jakinarazpenean zehazten den moduan ordaindu beharko delarik.

4.3.SORTZEN ELKARTEA.2018ko Diru laguntza eskaera.

Sortzen Elkartea Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du urteroko jaia datorren maiatzean Iruñean ospatuko dela. Hau dela eta, diru-laguntza eskaera egiten dio Goizuetako Udalari

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, eta beti ere eskaera honen arrazoia bultzatzen duela jakinaraziz, aho batez erabaki du diru-laguntzarik ez ematea.

4.4. NAFARROAKO UDALERRI ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA. Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtsekin 2018

Nafarroako Udalerririk eta Kontzejuen Federazioak Goizuetako udalari eskatu dio, federazio berak kudeatzen duen Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtsekin edizio berrian parte hartzeko.

Udalbatzak aho batez erabaki du, eta beti ere eskaera honen arrazoia bultzatzen duela jakinaraziz, dirulaguntzarik ez ematea.

4.5. UDALBILTZA PARTZUERGOA. 2018ko kuota

2018ko martxoaren 27ko idatziaren bidez, Udalbiltza Partzuergotik Goizuetako udalari 2018ko kuota ordaintzeko eskaera egin zaio. Goizuetako udalari, biztanle kopuruaren arabera 1.500€tako kuota ordaintzea tokatzen zaio.

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, Azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntza Orokorraren Legeak agintzen duen moduan, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, aurrekontuan hala izenduak egon behar dutela eta dagokion hitzarmena sinatu behar dela onuradunarekin. Goizuetako udalaren

aurrekontuan badago halako diru-laguntza izendua aurreikusia eta dagokion hitzarmena sinatu beharko litzake

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren eta idazkariaren ohartarazpenaren jakinaren gainean, aho batez erabaki du, 2018 urteko 1.500€tako kuota zuzenean ordaintzea eta hitzarmenik ez egitea.

5.-GOIZUETAKO ZENBAIT ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA LANEN ASISTENTZIA KONTRATUAREN ESLEIPENA

5.-ADJUDICACION del contrato de asistencia para la REALIZACIÓN DE LOS TRABAJOS DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS PUBLICOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE GOIZUETA

Visto que en la Sesión que el Pleno del Ayuntamiento de Goizueta celebró en fecha 30 de enero de 2018 se aprobó el Pliego de Cláusulas Administrativas y Pliego de Prescripciones Técnicas que han de regir la contratación de los trabajos de limpieza de edificios públicos municipales del ayuntamiento de Goizueta (casa consistorial, centro de salud, apartamento del personal sanitario de guardia, oficinas de servicios sociales)

Visto que el procedimiento de adjudicación seguido ha sido el procedimiento abierto inferior al umbral comunitario.

Visto que el anuncio de licitación se publicó en el Portal de Contratación de Navarra, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento

Visto que, una vez concluido el plazo de licitación, resultaron presentadas las siguientes empresas:

-MARIA SOLEDAD APECECHEA SALAVERRIA

Visto que fue admitida la única licitadora presentada, por presentar los documentos exigidos en el pliego de cláusulas administrativas particulares, y valorada la oferta técnica, tal y como consta en Acta expedida por el Secretario de la Mesa de Contratación en fecha 5 de marzo de 2018

Visto que con fecha 9 de marzo de 2018 tuvo lugar el acto público de apertura de la oferta económica y por la Mesa de Contratación, por unanimidad, se acuerda proponer al órgano de contratación la adjudicación del contrato a la oferta presentada por MARIA SOLEDAD APECECHEA SALAVERRIA, atendiendo a las ponderaciones que se determinan en la Cláusula 7ª del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y que a continuación se desglosan:

LICITADORES	Prop uesta técnica	oferta economica	TOTAL PUNTOS
Mª SOLEDAD	50	0,99	50,99ptos

APECECHEA SALABERRIA			
---------------------------------	--	--	--

Visto que, de conformidad con lo previsto en la Cláusula 10.5 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la contratación de los citados trabajos, Dña. MARIA SOLEDAD APECECHEA SALABERRIA con fecha 16 de marzo de 2018 ha presentado la acreditación de la documentación necesaria previamente a la adjudicación del contrato.

La Corporación por unanimidad acuerda:

PRIMERO: Adjudicar por el procedimiento abierto inferior al umbral comunitario la ejecución de los trabajos de limpieza de edificios públicos municipales del ayuntamiento de Goizueta (casa consistorial, centro de salud, apartamento del personal sanitario de guardia, oficinas de servicios sociales)

:

ADJUDICATARIA: MARIA SOLEDAD APECECHEA SALABERRIA

DNI.: 15.969.494-L

DIRECCIÓN: Calle Santa Maria nº 17-2º. 31754 Goizueta (Navarra)

PLAZO DE EJECUCIÓN: 1 año

PRECIO DE LICITACIÓN: 8.800 euros. Iva excluido

PRECIO DE ADJUDICACIÓN: 8.747,50 euros. Iva excluido.

Todo ello en base a la propuesta de adjudicación presentada por la Mesa de Contratación con estricto cumplimiento de las prescripciones contenidas en los Pliegos de Condiciones que rigen el presente contrato y oferta presentada.

SEGUNDO: Esta adjudicación queda suspendida durante el plazo de 10 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación, tras la cual adquirirá firmeza, esto es el 6 de abril de 2018

TERCERO: Notificar el presente acuerdo a la adjudicataria

CUARTO: Proceder a la formalización del correspondiente contrato con la adjudicataria, en el plazo de 15 días naturales contados desde la terminación del plazo de suspensión de la adjudicación. Previamente a la formalización del contrato, dentro de los 10 días naturales siguientes a la terminación del plazo de suspensión de la adjudicación, el adjudicatario deberá constituir la garantía definitiva, por el importe del 4 del valor estimado del contrato, esto es de 1.408€

6.-2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 01/2018. HASIERAKO ONARPENA

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gain

garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2018 ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontuhartzailearen txostenean oinarritzen da:

2018 urteko aurrekontuaren 01 aldaketa modu honetan egiten da

TXOSTENA

Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, kreditu berezi eta kreditu gehigarri bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea

2018 urteko aurrekontuaren 01 aldaketa modu honetan egiten da:

AURREKONTUAREN ALDAKETAK 01/2018

* Kreditu berezia: Kontusaila 1.41216230001 Makina eskabadoraren erosketak. Zenbatekoa: 38.000,05 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 38.000,05€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila 1.21101600001 Seguritate Soziala. Zenbatekoa: 1.500 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 1.500€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.41211310002 Langile Kontratazioa (Peoi Forestala, markazioa). Zenbatekoa 3.000 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 3.000€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.32326230001 Eskolako Patioko Argiteria. Zenbatekoa: 6.000€

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 6.000€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.32326090001 Parkea (Eskolakoa). Zenbatekoa: 11.100 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 11.100€

Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:

1.-Udalbatzak behin behineko onarpena

2.-Jendaurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.

3.-Erreklamazioak egongo balira, Udalbatzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.

4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.

5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da

Beharrezko ondoriotarako,

Goizuetan, 2018ko martxoaren 22an

IDAZKARIA.

Sin: Miriam Arozena San Miguel

Udalbatzak, egin beharreko aldaketak aztertu ondoren, aho batez, 2016 ekitaldiko aurrekontuaren 01/2018 aldaketei, hasierako onarpena ematea erabaki du, aldi berean legeak agintzen dituen izapidetzak egitea erabaki da.

7.-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatu duen, eta Interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien dirulaguntzen deialdiko dirulaguntzaren eskaera.

2018ko maiatzaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 2051/2018 Ebazpena, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien dirulaguntzen deialdia arautzen duena.

Goizuetako Udalak, udaberri-uda aldean egingo diren mendi markazio lanetarako, pertsona baten beharra ikusi du, deialdiaren 3.1 a) oinarrian aurreikusitako profila duen pertsona bat kontratatzea egoki iritziaz.

Pertsona honek egingo dituen lanen memoria bat prestatu da. Memorian adierazten den bezala, bereziki, Mendi Ordenazio Planak 2018rako aurreikusten dituen mozketak plana gauzatzeko, udal baso lotean zuhaitz markaketatan Nafarroako Gobernuak basozainei laguntze lanak egingo ditu. Bestalde, bestelako zerbitzu anitzetako lanak ere egingo ditu.

Guzti hau kontutan izanik, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.Memorian zehaztu diren eta egin behar diren lanak onartzea, ez delarik beharrezkoa, lan hori aurrera eramateko funtzio publikoen erabilera edo administrazio publikoen interes orokorren zaintza diharduen langilerik kontratatzea, 6.1 a) oinarrian aurreikusitako terminoetan

2. Aipatutako dirulaguntza deialdiak arautzen duen diru-laguntza eskatzea, dagokion izapidetzarekin hasiaz.

8.-MOZIOA: Pentsionistak martxan

“Nafarroako Pentsionistak Martxan” Elkarteak, honako mozioa aurkeztu dio Udaltzari honek onartu dezan.

MOZIOA

Pentsionistak aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuak egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat....

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzate, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietara badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

1.-Arbuia dezala pentsioen % 0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.

2.-1.080€tako gutxieneko pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez (batez besteko soldata haztatuaren %60a), eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Nafarroako Gobernuari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela

3.-Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezten.

4.-Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasagarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

5.-Bidali diezazkiela Estatu eta Nafarroako Gobernuari Udal honek onartu dituen erabakiak.

Udalbatzak, mozioa irakurri eta aztertu ondoren, aho batez onartu du

9.-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-024tik 031ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

24 zenbakia: Felix Escudero Mariezcurrena, alkazien matarrasa egiteko hasierako izapidetza

25 zenbakia: Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatea, martxoaren 10ean Herriko Etxeko Ganbara erabiltzeko baimena, hitzaldi bat emateko; eta martxoaren 28an eskolako jangela erabiltzeko baimena, antzerkia egiteko.

26 zenbakia: Urumeako Kronika, martxoaren 2an Herriko Etxeko Ganbara erabiltzeko baimena, solasaldia egiteko

27 zenbakia: Jose Ramon Zubiri Nolashoyas, Iberoko parajeen 4 alkazi aprobetxatzeko baimena, piketeak egiteko.

28 zenbakia: Laida Marco, martxotik ekaina bitartean, ostegunetan eta ostiraletan ordu beteko gimnasia abdominal hipopresibo ikastaroa egiteko, Herriko Etxeko Ganbara erabiltzeko baimena

29 zenbakia: Jesus Loyarte Arozena, matarrasa egiteko hasierako izapidetza

30 zenbakia: Aralar Musika Eskola, ekainaren 6an urteko kontzertua egiteko, Herriko Etxeko Ganbara eta azoperapea erabiltzeko baimena.

31 zenbakia: Maria Jesus Etxeberria Huizi, matarrasa egiteko hasierako izapidetza

Eguneko aztergaietan zerrendatutako gaiak aztertu ondoren, eta erregu eta galdera txandara pasa aurretik, Udalbatzako lehendakariak, Nafarroako Toki Administrazioako 6/90 Foru Legearen 81.2 artikuluan oinarrituta eta premiazko arrazoigatik, eguneko aztergaietan aurreikusitako gabe zegoen puntua Udalbatzaren esku uzten du, honek hausnartu ditzan.

Udalbatzaren hausnarketarako puntua hau da:

***Unibertsitateen eta Hezkuntza baliabideen zuzendari nagusiaren 94/2018 Ebazpena; Haur Hezkuntzako 2garren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza- DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obrak egiteagatik, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta Kontzejuei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdiko diru-laguntzaren eskaera**

Udalbatzak, eguneko aztergaiari sartu nahi den puntua aztertu ondoren, aho batez berretsi eta eguneko aztergai zerrendan sartzea onartu du

***Unibertsitateen eta Hezkuntza baliabideen zuzendari nagusiaren 94/2018 Ebazpena; Haur Hezkuntzako 2garren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza- DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obrak egiteagatik, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta Kontzejuei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdiko diru-laguntzaren eskaera.**

2018ko martxoaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 94/2018 Ebazpena, Haur Hezkuntzako 2garren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza- DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obrak egiteagatik, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta Kontzejuei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdia arautzen duena.

Goizuetako Udalak, "Andres Narbarte" Xalto Ikastetxe publikoko haur jolas parketa berri nahi du eta patioko argiteria ere berri nahi du, led sistema jarriaz.

Bi jarduera hauen aurrekontuak eskatu ditu, eta honakoak dira aurrekontuak:

-Jolas parkearen berritzea: 13.063,16€ (Bez-a barne)

-Argiteriaren berritzea: 9.957,09 € (Bez-a barne)

Jolas parkearen berritzea, deialdiaren 7garren oinarriaren b puntuan bideratuko den jarduketa izango da eta Argiteriaren berritzea berriz, oinarri bereko b eta c puntuan bideratuko den jarduketa.

Aurrekin hauek kontutan izanik, eta diru-laguntza arautzen duen deialdiaren 5garren oinarriak dionaren arabera, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.-Andres Narbarte "Xalto" ikastetxe publikoko jolas parkearen berritze lanak eta patioko argiteriaren berritze lanak (led sistemara pasatzea) onartzea, 23.020,25€tako (bez-a barne) inbertsioa onartuz

2.Aipatutako diru-laguntza deialdian dagokion diru-laguntza eskaera egitea

3.-Diru laguntzaren xede diren eskola instalazioen geroko funtzionamendu eta mantentze gastuak udalaren gain hartzea, dagokion neurrian.

10.-ESKARI ETA GALDERAK

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak bost gutxi direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut